



ETAPA	ERANSKINA
2	3



III. ERANSKINA: Dilemak

1

Isurien murrizketa eta garapenerako eskubidea

Rolak:

- Leonardo di Caprio: Leonardo di Caprio: AEBetako herritar honen arabera, garapen bidean dauden herrialdeek energia handitzeko energia berriztagarriak soilik baliatu behar dituzte.
- Sunita Narain: ekologista eta ekintzaile politiko indiarak energia eskuratzeko herri indiarak eskubidea duela azpimarratzen du.

Eztabaida:

- Indiako Gobernuak herritar pobrenei energia eskuratzeko aukera eman beharko al lieke, horretarako ikatza erabili beharko balitz ere?
- Leonardo Di Caprio bazina, zer esango zenioke Sunita Naraini (bideoko intelektual eta aktibista indiarra)?
- Zein izan liteke modurik tinkoena munduko potentzia handienei, hala nola Estatu Batuei eta Europako Batasunari, galarazteko gainerako herrialdeen karbono-aurrekontua agortzea?
- Ba al dago garapenerako eskubiderik krisi klimatikoaren testuinguruan? «Mendebaldeko» nazio «garatuek» esan behar al dute gainerako herrialdeek, ingurumena aintzat hartuta, zer egin behar duten edo ez zer ez duten egin behar?
- Nori interesatzen zaio energia berriztagarrien bidea hartzea? Nork egingo du edo erabakiko du? NBEk, gobernuek...?

Elkarrizketaren zati baten transkripzioa

(<https://www.youtube.com/watch?app=desktop&t=2009&v=zbEnOYtsXHA&feature=youtu.be> 33´30´´ - 38´05´´)

Gutxien garatutako herrialdeek, hazkunde azkarreko populazioak dituztela, azkar egin al dezakete (energia berriztagarrietarako) trantsizioa? India da munduko hirugarren isuri-igorle handiena, eta, hala ere, herrialdea energia-eskasia masiboaren eta itzalaldi gero eta handiagoen aurka borrokatzen ari da. Indiak etengabe dio bere lehentasun nagusia garapena dela eta jendea pobreziatik ateratzea (irratia).



S: Klima-aldaketak kezkatu egiten gaitu. Baina kontua da herrialde honetan energia eskuratzea klima-aldaketa bezain erronka garrantzitsua dela. Ziurtatu behar dugu indiar guztiek energia eskura dutela.

L: Entzun dudanez, hemen 300 milioi pertsona daude energiarik gabe, argirik gabe. Estatu Batuetako biztanleria osoaren parekoa da hori.

S: Gaur egun, Indiako herrixketan, jendeak behi-gorotza hartu, “gorotz-opilak” deitzen direnak egin, eta horiek erretzen ditu. Eta hori da janaria prestatzeko energia-iturri bakarra. *cow dung and they make what is known cow dung cakes and they burn those. And that ´s their only source of cooking energy.*

Indiako etheen % 30 inguruk oraindik ez dute energia eskuratzeko modurik. Mundu guztiari energia eman nahi bazaio, gure elektrizitatea eskuragarria dela ziurtatu behar dugu. Indiak ikatz-erreserba handia du, munduko hirugarren edo laugarren ikatz-erreserba handiena izango gara seguruenik. (Ashok Lavasa, idazkaria, Ingurumen, Baso eta Klima Aldaketa Ministerioa).

S: *Ikatza merkea da, zuri gustatu zein ez. Ikuspuntu honetatik pentsatu behar da: zuek arazoa iraganean sortu bazenuten, guk etorkizunean sortuko dugu. 700 milioi etxe ditugu janaria prestatzeko biomasa erabiltzen dutenak. Etxe horiek ikatza erabiltzen hasten badira, askoz gehiago erabiliko dira erregai fosilak. Eta, orduan, mundu guztia kiskaliko da. Estatu Batuetako GKEei aldiro entzun diet: «munduko pobre guztiek eguzki-energiara pasatu beharko lukete; zergatik egin behar dituzte guk egin ditugun akats berak?».* Hara, bada, hain erraza bada, zergatik ez dira Estatu Batuak eguzki-energiara pasatzen? Baina ez duzue egin. Gauza bat predikatzea da eta beste bat garia ematea.

L: *Esaten duguna egin behar dugu, jakina.*

S: *Sentitzen dut hau esatea, badakit estatubatuarra zarela eta ez dut nahi gaizki hartzea, baina zure kontsumoak egiaz zulo bat egingo du planetan. Eta nire ustez horixe da egin beharreko elkarrizketa. Grafikoak erakutsiko dizkizut, ikuspegi horretatik. Estatu Batuetako pertsona batek etxean kontsumitzen duen elektrizitatea Frantziako 1,5 herritarrek, Japoniako 2,2k; Txinako 10ek; Indiako 34k; eta Nigeriako 61 herritarrek kontsumitzen dutena da. Zergatik? Eraikin handiagoak eraikitzen dituzuelako, gehiago eraikitzen*

dituzuelako eta lehen baino askoz gehiago erabiltzen duzuelako. Kontua da, klimari buruzko negoziazioetan, auzitan jarri behar ditugula **bizimodua** eta **kontsumoa**.

L: Begira, ezinezkoa da zurekin ados ez egotea. Nola eztabaidatuko dizut? Arrazoi osoa duzu. Bai, oso zaila da argudio hori estatubatuarrei aurkeztea, gure bizimodua aldatu behar dugula; susmoa dut hori ez dela gertatuko. Beraz, krisi klimatikoa konponduko badugu, **energia berriztagarriak**, hala nola eguzki- eta **haize-energia**, gero eta merkeagoak izan behar dira, eta, zenbat eta diru gehiago erabili horietan, orduan eta gehiago inbertituko dugu, eta, azken buruan, arazo hori konponduko da. Baina ikusten dut burua astintzen ari zarela...

S: «Ez» esateko modu bat da. Nork inbertituko du? Izan gaitezen errealistak horri dagokionez. Nork inbertituko du eta nola inbertituko du? Gaur egun, eguzki-energian gehiago inbertitzen ari gara; Txina Estatu Batuak baino askoz gehiago ari da inbertitzen eguzki-energian. Zer ari da egiten Estatu Batuak munduko gainerakoek ikas dezaten? Erregai fosilekiko mendekotasuna duzuen herrialdea zarete, baina benetan askatzen bazarete, ikas dezakegu. Eta lidergo horri denok eutsi ahal izango diogu gure gobernuak entzun dezan: Estatu Batuek egin badezakete eta Estatu Batuek hala egiten badute, nahiz eta presio handiak jaso, guk ere egin dezakegu.

Iturria: «Before the flood»:

<https://www.youtube.com/watch?app=desktop&t=2009&v=zbEnOYtsXHA&feature=youtu.be>

Oraindik ez da izan **energia-trantsiziorik**. Dagoeneko gertatu dela pentsatzea mito hutsa da. Eguzki-panelek eta aerosorgailuek pixka bat xurgatu dute kontsumoaren eta biztanleria gehigarriaren bidez sortu dugun eskaera gehigarria. 1800. urteaz geroztik, **erregai fosilen** kontsumoa handitu besterik ez da egin, erauzteko oso erraza baita, eta erauzketa horrekin irabazi handiak lortu dituzten enpresek eta estatuek ez dutelako merkatua teknologia alternatiboen esku utzi nahi (ikus, halaber, **estraktibismoari** buruzko bigarren dilema). Albiste ona zera da, **energia berriztagarrien** kostuak jaitsi egin direla azken urteotan, eta, seinale politiko egokiekin, **trantsizio justua** gerta daitekeela.



2

Energia-trantsizioak, estraktibismoa eta sakrifizio-guneak

Ikasleak 2 roletan banatuko dira:

- Lider indigena, litioa erazten dituen enpresa bat ezartzearen aldekoa; hark dioenez, lanpostuak eskuratuko dituzte, eta enpresen bitartez hainbat premia betetzeko aukera izango dute (esaterako, eskolak eta komunitate-zentroak eraikitzea). Liderrak erabili ahal duen beste argudio bat da litioa beharrezkoa dela munduaren trantsizio ekologikorako.
- Beste lider indigena bat, bere komunitatean litioa eraztearen aurkakoa. Haren esanetan, litioa erazteak haien ingurunea suntsitzen du, eta enpresa erazleek eta Estatuak ez dituzte indigenen giza eskubideak errespetatuko.

Eztabaida:

Demagun, behingoan bada ere, Atakamako (Txile) gatz-lautadako **komunitate indigenen aurreiazko kontsulta** eskubidea errespetatu egiten dela. Buruzagiek eztabaidatuko dute zer bozkatu behar duten beren komunitateetatik gertu litioa erazteko instalazio bat irekitzeari buruzko kontsulta batean.

--

Eztabaida prestatzeko informazioa

Litioa mineral «zoragarria» bihurtu da, oso modu eraginkorren energia metatzeko aukera ematen duten ezaugarriak baititu. Metal arina funtsezko materiala da gure telefonoetarako eta gailu eramangarrietarako bateriak fabrikatzeko, baita energia-trantsizio berderako funtsezkoak diren ibilgailu elektrikoetarako ere.

Energia berriztagarrietatik eratorritako energia metatzeko aukera ematen duenez (eragozpen nagusia da ezin direla denbora luzean biltegitatu), bateriak fabrikatzeko litioa erabiltzeak nabarmen murriz ditzake berotegi-efektuko gasak. Gainera, ibilgailuetako litio-bateriak energia



berriztagarriekin kargatzeko azpiegitura behar adina garatu ondoren, gaur egungo energia fosilekin kargatu beharrean, bateria horiek erabiltzeak balio gehigarria sortuko du isurien murrizketan. Horrela, litioaren erabilera krisi klimatikoaren aurkako alternatiba gisa aurkezten da.

Argentinak, Boliviak eta Txilek guztizko erreserben % 60 baino gehiago dute, eta altitude handiko gatzagetan, gaur egun mundu osoan erabilgarri dauden litio-baliabideen % 51 dute. Gatzagak ekosistema hauskorrak dira: arro itxiak dira eta urte osoan ur gutxi erabiltzeko aukera dute. Halaber, balio handiko biodibertsitatea gordetzen duten hezeguneak dira, eta haientzat erabakigarriak dira ur gezako (gazitasun gutxiko) eta ur gaziko (gatz-proportzio handikoak, «gatzun» ere deitzen zaie) sistemen arteko oreka ahulak. Baina litioaren meatzaritzak arriskuan jartzen du ur geza/ur gazikara bi masa horien arteko oreka naturala, eta, esan bezala, arriskuan jartzen du uraren hornidura ekosistementzat eta bertan bizi diren herritarrentzat.

Iturria: «Litioa: trantsizio energetiko globalaren gizarte- eta ingurumen-kostuak» <https://co.boell.org/es/2020/05/08/litio-los-costos-sociales-y-ambientales-de-la-transicion-energetica-global>

Bada arrazoi bat Txile «litioaren Saudi Arabia» izendatzeko. Azken 20 urteotan, Txile izan da zilar-koloreko metal zuriaren munduko hornikuntzaren ia % 40ren hornitzailea; ezinbestekoa da gailu mugikorretan, smartphonetan eta auto elektrikoetan erabiltzen diren bateria kargagarriak fabrikatzeko.

Litioa funtsezko elementutzat jotzen da karbono gutxi isuriko duen teknologia baterako «energia-trantsizio berdean». Baina litio-erazketa gero eta handiagoa da, eta Txileko Atakamako basamortuko herri indigenen artean ur-eskasia dela-eta dauden gatazkak elikatzen ari da. Han daude munduko litio-meategi handienetako batzuk.

Batez beste 15 milimetro euri egiten duela urte osoan, Atakamako basamortua munduko lekurik lehorrena da. Atakamako litioa erauzteko, herri indigenek eta animaliek milaka urtez inguru gogor horretan bizirik irauteko izan dituzten baliabide hidriko urrien kopuru handiak behar dira. Eta, ikerketen arabera, dagoeneko denbora luzerako kalteak eragin zaizkio ekosistema ahul horri.



Txileko gatzagak herri indigenen antzinako lurraldean daude: aymara, kitxua, atakameño edo lickanantay eta colla. Herri horien kasuan, bertako urak, belardiak eta alturako hezeguneak funtsezkoak dira beren kulturarako, bizimodu tradizionalerako eta bizirauteko.

Txileko Atakamako basamortuan litioa aspaldi erauzten ari da, eta komunitateak ur-ekasia izaten ari dira, eta haien etxeko bizitzan eta nekazaritzan igartzen ari dira horren ondorioak. Atakamako komunitate indigenek urteak daramatzate ur-urritasunaz ohartarazten. Azken hamarkadan, ibaiak, aintzirak eta larreak gutxitu dira, Atakamako Herri Kontseiluak dioenez (18 komunitate indigena ordezkatzeko ditu).

Baina Txileko agintariek aintzat hartu dituzte, neurri handi batean, meatze-konpainiek ingurumen-inpaktuari buruz egin dituzten azterketak. Eta azterketa horiek, oro har, ez dute eragin nabarmenik identifikatu ur-mailetan edo inguruko naturan.

2018ko urtarrilean, CORFOk (Txileko Estatuko Garapen Agentzia, Atakamako gatzagetako meatze-kontzesioak dituen eta litioko meatzaritza-konpainiei errentan ematen dizkiena) kontratu bat sinatu zuen SQMrekin (konpainia meatzaria). Horren bidez, enpresak hurrengo urteetan hirukoiztu ahal izango du litio-erauzketa, eta Atakamako meatzeen ustiapena luzatu ahal izango du 2030era arte.

Txilek Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE) 169. Hitzarmena berretsi du. Hitzarmek horren arabera, gobernuak behartuta daude herri indigenei kontsulta egitera, haien ingurunean eta antzinako lurraldean proiektu handiek esku hartzen dutenean.

Hala ere, «oso argi izan behar da Txileko herri indigenei ez zaiela inoiz behar bezala kontsulta egin litioaren erauzteari dagokionez», dio Marcel Didier Von Der Hundt Herriarren Behatokiko (giza eskubideak sustatzen dituen Txileko GKE) abokatu eta aholkulari juridikoak.

Hala ere, meatze-konpainiek hitzarmenak sinatu dituzte komunitateekin, haietan jasoz finantza-onurak, enpleguak eta bestelako ekarpenak, hala nola eskolak eraiki edo konpontzea eta bekak ematea. Hango herritar batzuk pozik daude akordio horiekin, eta beste batzuek, berriz, zalantzan jartzen dute zer gertatuko den garai oparoaren ondoren, batez ere neurri horietako askok



estatuari dagozkion zerbitzuak ordezen dituztelako. Albemarle enpresa meatzariaren arabera, salmenten % 3 arte komunitatearen garapenerako erabiltzen da, eta Atakamako Herri Kontseiluarekin partekatzen da.

Akordioak gatazkak eragin ditu tokiko komunitateen artean: zenbait eragile eta erakunde enpresa meatzarien dirua jasotzearen aurka daude, eta beste batzuek, berriz, diruak komunitate pobreenei laguntzen diela diote. Gainera, oso litekeena da etorkizun handiko litio-eskaerak eta trantsizio ekologiko globalean litioak duen rola Txileko garapen ekonomikoari laguntzea eta industria horretako langileen enplegua bermatzea.

Martxoaren 21ean abiatutako Amnistia Internazionalaren kanpaina berri batek erronka egin die automobil-enpresei, ea datozen bost urteetan munduko lehen bateria etikoa sortzeko gauza diren. Halaber, enpresei eskatzen die giza eskubideen arloko praktikak indartu ditzatela eta hornitzaileekin nahiz litioa ekoizten duten herrialdeetako gobernuekin konpromisoa har dezatela. Amnistiako idazkari nagusiak, Kumi Naidook, honako hau adierazi zuen: «Norabidea aldatu behar dugu orain, edo klima-aldaketaren erantzukizun gutxien dutenek —komunitate indigenek eta hurrek— ordainduko dute erregai fosilak uztearen prezioa».

Energia metatzeko litioa behar duten eguzki- eta haize-energien eta berriztagarrien arloan ari diren enpresek ere badute erronka horri aurre egiteko aukera. Energia-enpresek beren eragiketen erdigunean jarri behar dituzte komunitate eta langile indigenak, karbono gutxiko ekonomia baterako trantsizioa azkarra ez ezik bidezkoa ere izan dadin.

Iturria: [«Our demand for electric cars and smartphones is drying up the most arid place in the world - Danwatch»](#).

Iturria: «Bi bide ingurumenaren suntsiketarantz: estraktibismo berdea Argentinako eta Txileko gatz-lautadetan»:
<https://observatoriosalares.wordpress.com/2021/06/16/dos-caminos-hacia-la-destruccion-medioambiental-extractivismo-verde-en-los-salares-de-la-argentina-y-chile/>



ETAPA	ERANSKINA
2	3

Garrantzitsua da planteatzea ea **egoera horiek nola eragin ditzaketen desplazamenduak**: Enpresak eragiten badu habitatak suntsitzea, ura eskuratzeko aukera galtzea, etab., posible al da horrek desplazamenduak eragitea? Irakasleei galdera horiek sortzen ez bazaizkie, irakasleek planteatu beharko lituzkete.

Era berean, interesgarria da **nazio eta mundu mailan industria-gizartean (klima-aldaketaren arduradun nagusien) deskarbonizazioa** sustatzen duten **diskurtso eta ekimenen kontraesanak azpimarratzea, trantsizio hori joaten delako lurralde indigenen eta landa-eremuen desjabetzearen eta ingurumen-sakrifizioaren kontura**, adibidez, Andeetako gatzaga eta hezeguneen kasuan. Ekosistema horiek babesteko eta zaintzeko, garrantzitsua da aintzat hartzea herri indigenen, ingurumen-ekintzaileen eta ikertzaileen ahotsak eta ikuspegiak, normalean **justizia klimatikoaren** aldeko borroka globaletan baztertzeko direlako.

«Hazkunde berderantz igarotzeko dugun txartelak ingurumenean sakonki murgiltzea eskatzen du» dio [Olivia Lazard-ek bere TED hitzaldian](#). Hitzaldi hori erabilgarria izan liteke dilema argitzeko eta sakonago ulertzeko



3 Migratzea edo ez migratzea kultura bat desagertzeko arriskuan dagoenean

Rolak:

-
- **Laisa:** Fiji Uharteetako Gobernuaren klima-aldaketari buruzko politikak planifikatu eta formulatzen dituen teknikaria. Ratu-ren komunitatearen birkokapena antolatzen ari da.
- **Ratu:** arrantzale bat da, Korolevu uharte zaharrea duen bizilekua utzi nahi ez duena. Hark dioenez, ez du utzi nahi arbasoak belaunaldiz belaunaldi bizi izan diren lurra, ez eta itsasoa ere, batez ere, itsasotik urrun dagoen leku batera joateko.

Eztabaida:

Raturen herrixka arriskuko lekutzat jo dute. Planteatzen den konponbidea **komunitatea birkokatzea** da. Laisak komunitatearekin eztabaidatu du egoera, eta Ratu egungo herrixka ez uztea erabaki dutenen buruzagia da.

--

1. Klimaren, kulturaren eta komunitatearen arteko oreka: Fijiko populazioaren birkokatze erronka

Korolevuk aurrean dituen aukera eta erabaki sorta egin Ozeano Bareko eta mundu osoko komunitate askoren parekoak dira. 2050erako, klima-aldaketaren ondorioz 143 milioi barne-desplazatu izan daitezke, berotegi-efektuko gasen isuri globalak murrizteko gehiago egiten ez bada ([Munduko Bankuaren txostena](#)).

Itsas mailaren igoera, itsas intrusioa eta muturreko fenomeno meteorologikoak dira, besteak beste, populazioak aurre egin behar dien arrisku-faktoreetako batzuk. Baina, munduko zati handi batentzat klimak eragindako desplazamendua etorkizuneko kezka bada ere, Ozeano Bareko itsasertzeko altitude txikiko komunitateek erronka zail bat dute aurrez aurre: nola, noiz eta non kokatu komunitate osoak.

Praktikan, komunitatearen benetako birkokapena asmo hutsa da oraingoz. Adibide arrakastatsu gutxi daude, baina desafio ugari klima-aldaketaren eragin ekonomiko neurgarriak balantzan jartzen badira Fijiko indigenen kultura-balio ukiezinekin, haien arbasoak belaunaldiz belaunaldi bizi izan diren lurrarekiko eta bizitzeko behar duten itsasoarekiko duten loturarekin.

Fiji —[2015eko Parisko Akordioa berretsi zuen lehen herrialdea](#)— ofizialki argitaratu zituen [birkokatzeari buruzko gidalerroak](#) 2019aren amaieran. «Dokumentu bizia» dela aipatuz, akordioaren gidalerroek ezartzen dute birkokatzea azken aukera izango dela, beste egokitze-aukera batzuk, hala nola dikeak eraikitzea eta hezeguneak birgaitzea, agortzen direnean edo ezinezkoak direnean.

Gidalerro horiek garrantzi handia ematen diete lidergo komunitarioari, familien parte-hartzeari eta birkokatzeari buruzko erabakiak hartzeko prozesuari. Birkokatzearen finantzazio eraginkorra are gehiago errazteko, Fijik ezarri zuen, 2020an, [Herri desplazatuen birkokapen klimatikorako funts fiduziariora komunitateentzat eta azpiegiturentzat](#), klima-aldaketaren ondorioz desplazatutako pertsonak birkokatzeke munduko lehen funtsa.

«Orain arte, komunitateak birkokatzeke esperientzia mugatu samarra da», azaldu zuen Andreas Neef-ek, Auckland-eko Unibertsitateko garapen-ikasketen irakasleak, Fijin landa-lan handia egin duenak.

«Fijin lur-masa handi samarra dago, baina herrixkak kostatik urrunduta ere, ez da derrigor lortuko haiek seguruagoak izatea», esan zuen Neef-ek.

Sabira Coelho Fijiko [Migrazioetarako Nazioarteko Erakundearen](#) eskualdeko bulegoko ingurumen-migrazioaren eta klima-aldaketaren arduraduna da; haren arabera, arreta gehiago merezi dute tokiko kultura-faktoreek eta lurak eskualdeko herri indigenentzat duen garrantzia ulertzeak.

«Ozeano Bareko herriek Lurrarekin dituzten lotura espiritual eta kulturalak ezagutu eta onartu behar dira, birkokatze klimatikoak dakartzan ondorioak ulertzeko», esan zuen Sabira Coelhok.

Fijiren gidalerroek aitortzen dute, eta argi uzten dute, birkokatzea komunitateak zuzendutako prozesua izango dela. Baina, praktikan, arrisku potentzialak eta kuantifikatzen hain zaila den kultura-ondarearen balioa

orekatzea erronka bat da, eta tokian tokiko gauza espezifikoa.

«Neurri batean, gobernuak kontuan hartzen ditu kultura-balioak, baina, askotan, ez ditu aintzat hartzen balioekin eta arriskuen pertzepzioekin lotutako gaiak», esan zuen Neef-ek. Adierazi zuenez, herrixka batzuen ustez, itsas mailaren igoera eta ekaitz indartsuak arrisku txikiagoak dira, beren antzinako lurretatik aldentzeak eta belaunaldien arteko balio kulturala galtzeak dakarten arriskua baino.

Neef-en beste kezka bat da zehatz-mehatz definitzea nor diren komunitate bateko parte-hartzaile aktiboak eta pasiboak, eta ziurtatzea komunitateetako ahots baztertuak, hala nola emakumeak edo gazteak, behar bezala entzuten direla.

«Sarritan, tentsio hori izaten da komunitatean alde egin nahi dutenen eta lurrarekin duten lotura indartsua dela eta ezin direla mugitu sentitzen dutenen artean», esan zuen Neefek.

Neefen taldeak bere landa-ikerketan, Votua eta Nawaqarua herrixketan, Ba ibaiaren behe-arroan, Viti Levuko ipar-mendebaldean, ikusi zuen gauza bat generoen arteko arrakala izan zen. «Gurekin hitz egin zuten emakume asko birkokatzeke prest zeuden, eta, askotan, komunitateko buruzagiak [gehienak gizonak] zera esaten zuten: “Hau da gure antzinako lurraldea, ez dugu lekualdatu behar”, kontatu zuen Neefek..

Iturria: «Balancing climate, culture, and community: Fiji's relocation challenge»:

<https://devex.shorthandstories.com/balancing-climate-culture-and-community-fijis-relocation-challenge/index.html>

2. Borondatezko ez-mugitzea: Ozeano Bareko indigenen ahotsak

Fijiko Gobernu aitzindaria da Ozeano Bareko birkokatzeen prozesuetan. Fijiko kostalde ahuletako komunitateekin lan egiten du, eta borondatezko ez-mugitzearen jardunbide egokien adibide berri bat eskaintzen du. Fijiko birkokatzeen gidalerroen proiektuak jasotzen du zer prozedura aplikatu daitekeen birkokatze fisikoa beharrezkotzat jotzen denean, baina



komunitate batek lekuz ez aldatzea erabakitzen duenean. Prozedura horrek honako hauek eskatzen ditu: borondatezko ez-mugitzea errespetatzea, lehenik eta behin; borondatezko ez-mugitzearen arrazoiak ikertzea; komunitatearekin elkarrizketak izatea lurra egokitzeko eta edukitzeko aukerei buruz; klima-aldaketarekin zerikusia duten gaiak lehen eta bigarren hezkuntzako ikasketa-planetan sartzea; eta klima-eraginetarako prestakuntza psikologikoa eta emozionala bermatzea.

Hala ere, gidalerroek ezartzen dute birkokatzea kasurik okerrenean aplikatu daitekeela, hau da, bizitzak galtzea saihesteko. Kasu hipotetiko batean, gidalerro batzuen arabera, egoera okerrenean ere birkokatzea ez dela aplikagarria ezarriko balitz, borondatezko ez-mugitze horrek laguntza etiko eta juridiko sendoa beharko luke, giza eskubideak eta giza duintasuna zaintzen direla bermatzeko. Horrek barne hartuko luke legez onargarriak diren frogak egitea, alegia, tokian tokiko egokitze-aukera guztiak agortu direla, ez-mugitzearen ondorio zehatzei buruzko elkarrizketa izan dela, eta ez-mugitzea erabat borondatezkoa dela frogatzea. Arau juridiko lotesleak prestatu beharko lirateke giza eskubideak eta giza duintasuna egoera horietan lehentasun nagusia izan daitezen.

Iturria: Forced Migration-en «Voluntary immobility: indigenous voices in the Pacific»: <https://www.fmreview.org/syria2018/farbotko>

Oso desplazamendu mota berezia da, birkokatze «aukera» batean oinarritua. Garrantzitsua da adieraztea gauzak ez direla beti horrela ateratzen zenbait gizartetan, hala nola Etiopian edo Somalian, non krisiak azkarragoak edo aurreikusten zailagoak diren (gosetea, adibidez), eta non hango gobernuak ez dauden, nahitaez, jendea birkokatze baldintza egokietan.



4

Bizimodua arriskuan

Rolak:


- **Amina:** arrantza tradizionalaren bidez harrapatutako arraina prozesatzen duen langilea. Bi hilabeteen ezin izan du arraina prozesatu, arrainik ez zegoelako. Haren hiru seme-alaba Kanariar Uharteetara arrantza-ontzi txikietan iristen saiatu dira, eta batek bakarrik erdietsi zuen: bat itsasoan hil zen eta bestea desagertuta dago. (1. irakurgaia)
- **Anton:** Espainiako itsasontzi bateko kapitaina da, Senegalek eskatzen zizkion tasak ordaindu ditu, baina ez du baimenik jaso Senegalen arrantzatzeko. (1. eta 2. irakurgaiak)

Eztabaida:

- Nor dira arrain faltaren erantzuleak? Zergatik?
- Norena izan behar du arrainak?
- Loturarik ba al dago arrain faltaren eta gazte senegaldarrek Europara emigratzearen artean? Zergatik?
- Arrantza-itun bat dago. Migrazio-itunik egon beharko litzateke?
- Mendebaldeko herrialdeek atzerrian arrantzatu beharko lukete, beren gehiegizko barne kontsumoa elikatzeko?
- Herrialde horiek (kasu honetan Espainiak) ordaindu behar al dute eragiten duten kaltea? Adibidez, Senegalgo desplazatuak hartu beharko lituzkete?
- Nola babesten dugu oparotasun gutxiko herrien ingurumena mendebaldeko aktoreen edo beste batzuen ustiapenetik, boterean eta aberastasunean halako desoreka dagoenean? Adibidez, Senegalek beharrezkoa du Europarekiko merkataritza
- --

1. Europak Senegalgo arraina nahi du, baina ez hango migratzaileak

Itsaso zabalean 500 bat gazte senegaldar hil dira, eta milaka bizirik atera



dira, Europara iristeko ahaleginean, beren bizitza arriskuan jarrita. Giza tragedia ez da eten. Eta tragediak albisteen titularrak hartzen dituen bitartean, Senegalgo arrantza-sektorea aurrekaririk gabeko krisia ari da pairatzen: Senegalgo agintariek Europar Batasunarekin (EB) duten arrantza-hitzarmena berri berri dute.

Munduko arrantza-potentzia nagusiek beren urak hustu dituztenetik, industriako gehiegizko arrantzaren arazoa urruneko itsasoetara esportatzen ari da. Europako Batasunak Afrikan arrantza egiteko lehen alde biko hitzarmena 1979an sinatu zuen Senegalekin, eta, handik gutxira, Txinako arraste-ontziak eta Asiako beste ontzi batzuk mendebaldeko Afrikako uretan sartu ziren, haietako asko legez kanpo. Mendebaldeko Afrikan legez kanpokoa lanean ari diren ontzi askok komenientzia-banderak dituzte. Environmental Justice Foundation-en arabera, ontzi horietako asko Europako enpresen jabegokoak dira jatorriz.

EB migratzaile senegaldarrak beren lurretara itzultzen hasi da, baina berak jarraitzen du herrialde hartako arrantza-baliabideak ustiatzen. Baliabide horien eskasia da, hain zuzen ere, milaka gazte senegaldarren etsipenaren arrazoia.

Greenpeace-Afrikak fenomeno horren benetako arrazoiak aztertzeko eskatu die EBko eta Senegalgo agintariei, akordio hori sinatzean egoera bide txarretik eraman beharrean irtenbide jasangarria bilatzeko.

Europako Batasunak Dakarren duen ordezkartzaren jakinarazpenaren arabera, arrantza-hitzarmen berriari esker, Europako 45 ontzik gutxienez 10.000 tona hegaluze eta 1.750 tona legatz beltz arrantzatuko dituzte urtean, bost urtean 15 milioi euroko (Afrikako 10.000 milioi libera CFA) finantza-konpentsazioaren truke.

Gaur egun, bistan da baliabide horien urritasunaren arrazoiak direla, neurri handi batean, Senegalgo arrantza-baliabideen kudeaketa txarra, sinatutako akordioak, eta atzerriko ontziei emandako arrantza-lizentziak.

Iturria: [Europe wants Senegal's fish but rejects its migrants - Greenpeace Africa](#)

«Gaur izan ezik, bi hilabete ezin izan dugu inolako arrainik prozesatu. Oso nekatuta gaude», dio Aminak, arrain-prozesatzaile tradizionalak. «Guregatik balitz, itsasontzi horien aurkako laguntza bilatuko genuke. Jarduera geldiarazteko eta arraina lortzeko ahal den guztia egiteko laguntza bilatuko genuke. Ez dago arrainik. Gainera, gure seme-alabetako batzuk itsasontziz

bidaltzen ditugu Europara. Batzuk Espainiara joan ziren: batzuek lortu zuten eta beste batzuek ez», erantsi du Aminak (...)

Iturria: <https://es.euronews.com/2022/02/11/la-pesca-de-grandes-buques-extranjeros-asfixia-a-la-pesca-tradicional-en-senegal>

2. Galiziako ontziek ezin dute arrantzan egin Senegalen, nahiz eta lizentzia ordaindu, Gobernuaren betoa dela eta.

2019ko uztailean, Senegalek bost urteko arrantza hitzarmena sinatu zuen EBrekin 1,7 milioi euroren truke (1,8 milioi dolar estatubatuar). Ordainketak gauzatzeko, 800.000 euro (857.000 USD) ordainduko dira dirutan, eta gainerakoa herrialdearen arrantza kudeatzeko politikari laguntzeko programetan erabiltzen da.

Espainiako Arrantza Konfederazioak (Cepesca) Senegali leporatu dio 2019ko uztailean Europar Batasunarekin sinatu zuen bost urteko arrantza protokoloa haustea.

Cepescak esan zuen Senegalek uko egin diola Espainiako kanabera-ontziei baimenak emateari, eta 2022aren hasieratik Dakarreko portuan lotuta daude. Amarratutako flotak, Cepescaren arabera, gastu operatiboak metatzen jarraitzen du, konpainiek marinelen eta mekanikoen soldadak, portuko gastuak eta lizentzia-tasak ordaintzen baitituzte, diru-sarrerarik lortu ezin izanda ere.

Konfederazioak egoera ulertezina zela esan zuen, eta Europako Batzordeari eskatu dio «egoera lehenbailehen desblokeatzeko eta Europako arrantzaleek hirugarren herrialdeekiko dituzten interesak defendatzeko, kasu honetan bezala, eta era ulergaitzean, EBrekiko arrantza-hitzarmen bat hausten baitute».

Senegalgo uretan aritzen diren euskal kanabera-ontziak Dakartuna izeneko elkarteak ordezkatzeko dituzte, eta haiek lanpo sabel marraduna, atun hegats-horia eta moja harrapatzen dituzte. Baina duela 21 hilabetetik hona ezin izan dute arrantzan egin, galarazi baitzaie «Han-eko badiara sartzea eta arrantzarako beita bizia lortzea», Cepescak esan zuenez.

Alioun Nday Senegalgo Arrantza eta Itsas Ekonomiako ministroak esan zuen indarrean jarraitzen zuela Europako ontziei lizentzia berririk ez emateko 2022ko urtarrilaren 1eko erabakiak. Europako ontziei Senegalgo arrantza-baimenak eskuratzea galarazteko erabakia martxoaren 25ean berretsi zen Senegal eta EB arteko Batzorde Mistoaren bilera batean, Cepescaren arabera.

Iturria [CEPESCA accuses Senegal of denying fishing permits to EU fleet | SeafoodSource](#)

Bi aldeetan langileen profilak azaldu ditugu, mehatxu gero eta larriagoa bizi duten lanbideetakoak, baina egoera askoz ere prekarioagoa da Senegalen Galizian baino. Neurri batean, arrantzale senegaldarrak Espainiako arrantzaleak baino askoz zurgarriagoak dira, beren inguruaren mendekotasun estuagoan daudelako, eta arrantzale tradizionalak, beharbada, ez dituztelako baliabide industrial/teknologiko berberak arrainak harrapatzeko, eta bizi diren herrialdeetan lor dezaketen laguntza ezin delako konparatu.

Agian pentsatu beharko litzateke ea mendebaldeko herrialdeek atzerrian arrantzatu behar ote duten, beren gehiegizko kontsumoa elikatzeko. Eta, oro har, **gehiegi kontsumitzen duten** herrialdeek sortutako kaltea konpontzeko betebeharra izan behar ote duten, adibidez, migratzaile senegaldarrak onartuta. Migrazioa bizi-baliabideak galdu izanaren ondorioa izan liteke. Bidezkoa ote da europarrek Senegalen arrantzan egin ahal izatea eta kaltetutako senegaldarrek Europara joaterik ez izatea?



Zergatik daude Garrantzitsua da esatea, halaber, arrantzatik bizi diren pertsoez gain beste aktore batzuk ere badirela: tamaina handiko erakundeak, hala nola Europar Batasuna edo Senegalgo Gobernua, nazioarteko arrantza-itunak dituztenak. Eta beste aktore bat ere aipatzen da: Txina, hain zuzen ere. Testuinguru horretan, honelako galderak egin litezke: nola





ETAPA	ERANSKINA
2	3

*banatu beharko genuke ozeanoen «kontrola»?
Senegalgo gobernuak badu eskubiderik
arrantzarako baimena emateko edo ukatzeko?
Eta hala bada, nola babes dezakegu herrialde
pobreagoen ingurumena «mendebaldeko»
eragileen edo beste batzuen ustiapenetik,
Europa/Senegal moduko botere eta aberastasun
desoreka dagoenean?*



4

Babesleku klimatikoa, zer esan nahi du horrek?

Ikasleak 2 roletan banatuko dira::

- Batzuek defendatuko dute errefuxiatu klimatikoaren izaera nazioarteko zuzenbidean legez aitortzea, eta Zeelanda Berriak errefuxiatu klimatikoaren bisak ematea, klima-aldaketak Ozeano Barean desplazatutako pertsoneri.
- Besteak Zeelanda Berriko gobernuak izango dira, eta Pazifikoko uharteetako biztanleei errefuxiatu klimatikoaren bisatuak ematearen aurka azalduko dira.

Eztabaidarako galderak

The Zer iritzi duzue? Errefuxiatu klimatikotzat hartu beharko lirateke...

- ... inguruko ingurumen-faktoreengatik (urakanak, esaterako) desplazatutako pertsonak. Edo fenomeno motelagoengatik, hala nola lehorte errepikatuengatik eta uzten errendimendu baxuagatik, edo itsas mailaren igoeragatik.
- ...beren herrialde, eskualde edo hirietatik kanpora edo barruan desplazatutako pertsonak.
- ...kolonizatuak izan diren edo garatutako munduaren aberastasunetik historikoki baztertu diren pertsonak, baina klima-aldaketaren ondorio larrietako batzuei aurre egin behar dietenak.
- ...lurrak galdu dituzten herri eta komunitate indigenak, edo petrolioaren, meatzaritzaren, turismoaren eta industria estraktiboaren interesetatik babesteko borrokan ari direnak.
- ...bidaietan edo kokaleku berrietan ingurumen-baldintza gogorak eta arrazismoa aurkitzen duten migratzaileak.
- ...beren burua halakotzat identifikatzen duten pertsonak.

1. Nor dira errefuxiatu klimatikoak?

Barneko Lekualdatzeak Zaintzeko Zentroak (IDMC, ingelesezko siglen



arabera) kalkulatu du 2008 eta 2020 bitartean, 283 milioi pertsona desplazatu direla mundu osoko klimarekin zerikusia duten «hondamendiengatik». Gero eta gehiago, desplazamendu horiek klima-aldaketaren ondorio dira.

Bigarren Mundu Gerraren ondoren, Nazio Batuen Erakundea (NBE) sortu zen eta Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala ezarri zen 1948an. 1951n, NBEk Errefuxiatuei buruzko Konbentzio bat onartu zuen, eta 1961ean, berriz, Jarraipen Protokolo bat, giza eskubideen deklarazioan oinarritua. Errefuxiatuei buruzko Konbentzioak oinarriak ezarri zituen «errefuxiatua» definitzeko egungo nazioarteko zuzenbidean: arraza, erlijio, nazionalitate, gizarte-talde edo iritzi politiko jakin bat izateagatik «jazarpena jasateko beldur ondo oinarritua» duen pertsona da. Esan beharra dago «errefuxiatu»aren definizio juridikoaren eboluzioaren sustraiak historian daudela: XVII, XVIII eta XIX. mendeetan, eta lehenago, atzerriko herrialdeetan asiloa bilatzen zuten «errefuxiatuak» urriak ziren, eta, sarritan, goi-mailako elite aberatseko kideak ziren, beren estatuaren jazarpenetik ihes egiten zutenak. Gehienetan oposizio politikoko kideak edo disidenteak, intelektualak edo gutxiengo erlijiosoetako kideak ziren. Horregatik, «errefuxiatu»aren lehen definizioek ez zituzten aipatzen gerraren, hondamendien edo bestelako gertaeren ondorioz desplazatu behar duten pertsona «normal» gehienak, eta pertsona horietako askok ez zuten beren herrialdeak uzteko baliabide aski, etxetik alde egin behar izan ondoren. Hori dela eta, «errefuxiatu» hitzaren legezko definizioa jazarpen partikularra jasaten duten pertsonengana mugatzen da, hasiera batean, beren herrialdeetatik ihes egiten duten eliteentzat diseinatu baitzen. Alde horretatik, esan liteke legearen definizioa zaharkituta geratu dela, baina ordutik aurrera eboluzionatu egin du pertsona gehiago babesteko, bereziki Bigarren Mundu Gerraren ondoren. Hala ere, oraindik ez ditu barne hartzen gosetik, pobrezatik edo ingurumen-aldaketatik ihesi doazen pertsonak, eta esan genezake neurri batean hori gertatu zela hasierako «errefuxiatuak» aberatsak zirelako, kontu horien gaineko kezkarik ez zutenak.

Faktore ekonomikoengatik (pobrezia, adibidez) edo ingurumen-hondamendiengatik desplazatutako pertsonak ez dira definizio horretan sartzen. Hala ere, egoera politikoak (kolonialismoa, gerra eta gobernu zapaltzaileak, esaterako) ekonomia- eta ingurumen-baldintzekin lotuta egon ohi dira.

Klima-aldaketak eragina izan dezake lehortean eta, beraz, nekazaritzan. Hori dela eta, nekazaritzaren diru-sarrerak gutxitu eta pertsona horiek beste lan bat aurkitu behar dutenean, desplazamendua aukera dezakete. Errefuxiatu



klimatikoak al dira? Baliteke inguruan nekazaritzakoa ez den beste lan bat egin ahal izanez gero ez desplazatzea. Orduan, klima-aldaketak eraman ditu desplazatzera? Edo tokiko ekonomiak enplegu alternatiborik ez izateak?

Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Konbentzioak beste definizio bat ere ematen du: errefuxiatua bere jaioterritik kanpo dagoen pertsona da. Baina klima-aldaketarekin lotutako gertaerengatik desplazatutako pertsona gehienak beren herrialdean bertan mugitzen dira, hasieran behintzat.

Babesleku klimatikoaren kontzeptua definitzea zaila da, klima-aldaketaren ondorio handiak neurtzea eta iragartzea zaila baita. NBEk klima-aldaketari lotutako desplazamenduen errealitatea onartzen duen arren, gaur egun nazioarteko zuzenbideak ez ditu babesten errefuxiatu klimatikoak. Errefuxiatu “tradizionalek” ez bezala, errefuxiatu klimatikoak beren sorterri suntsitura itzularazi daitezke edo errefuxiatu-esparruetan bizitzera behartu.

Klima-aldaketaren eraginez desplazatutako pertsonen «errefuxiatuak» deitzea eskatu izan dute ekintzaile klimatikoek, baina termino hori oso politizatuta dago. Mundu osoko gobernuak beldur dira, arazoari legezko etiketa bat emanda, krisi humanitario berri horren erantzukizuna beren gain hartu beharko ote duten.

Gauzak gehiago korapilatzeke, ez zaie denei gustatzen «errefuxiatu klimatiko» terminoa. Termino hori gustukoa dutenek argudiatzen dute gaur egun «errefuxiatu» definizioa zabaltzen duela pertsona gehiagorentzako eskubideak eskatzeko, eta hobeto biltzen dituela pertsonen etxetik alde egitea eragiten duten faktore guztiak —politikoak, ekonomikoak eta ingurumenekoak— eta faktore horien arteko interakzioak.

Termino hori gustukoa ez dutenen arabera, berriz, izendapen horrek pertsonak klima-aldaketaren biktima ahalik gabea bihurtzen ditu, eta maiz aplikatzen zaie egoerarekin zerikusirik ez duten pertsonen, eta klima-aldaketara egokitu beharrak eragindako erantzuna da, hau da, pertsonak birkokatzea irtenbide bat dela onartzea, eta ez pertsonen beren lurraldean justizia lortzea, handik alde egin beharrik gabe.

Errefuxiatuen buruzko Azterketa Kritikoaren Kolektiboak «errefuxiatu» terminoaren definizio zabalago bat aldeztu du, hau da:

Errefuxiatuak gizakiak dira, beren sorterriaren barruan edo kanpoan indarraren indarrez desplazatuak, arrazoia dela jazarpena, gatazka, gerra, konkista, asentamendua/kolonialismoa, militarismoa, okupazioa, inperioa eta ingurumen- eta klima-hondamendia, edozein dela ere haien egoera



juridikoa. Errefuxiatuek beren burua identifikatu dezakete, eta, askotan, ez dute aitortzen izaten Estatuko eta nazioarteko legeek proposatutako definizio mugatuen barruan, eta beraz, kasu horietan, beste definizio baten barnean aintzat hartu ahal dira.

Iturria: Nor dira errefuxiatu klimatikoak? (climaterefugeestories.com)

2. Bisatu klimatikoak errefuxiatu klimatikoentzat: Zeelanda Berriaren kasua

2017an, Zeelanda Berriak bisa humanitario berria iragarri zuen Ozeano Barean klima-aldaketaren ondorioz desplazatutako pertsonentzat. Baina, 2018an, norabidea aldatu zuen, bisa bertan behera utzi eta Pazifikoko uharteetako herrien lehentasunei jarraituz, idatzi du Nina Hallek.

2017ko urrian Zeelanda Berriko Klima ministroak, James Shawk, mundu mailako ekimen berri bat iragarri zuen: klima-aldaketak kaltetutako Ozeano Bareko 100 lagunentzako bisa humanitarioa. Bisa pilotuak aukera emango lieke Zeelanda Berrira lekualdatzeko Ozeano Bareko uharteetako herritarrei, itsas mailaren igoerari, itsas intrusioari eta klima-aldaketaren bestelako ondorio kaltegarriei aurre egin behar dietenean.

Shaw Alderdi Berdeko liderra ere bazen, eta iragarpen hau egin zuen Bonnen Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioaren gailurraren bezperan, munduari mezu argia bidaltzeko: Zeelanda Berria aitzindari izango da klima-krisiaren aurkako borrokan eta bere eskualdean klima-aldaketak gehien eragiten dien pertsoneri laguntzen.

Orduz geroztik, mundu osoko komunikabideek eta politikariek hartu dute aintzat politika aitzindari hori. Aurrerapauso handia izan zen; izan ere, beste gobernu bakar batek ere ez du halako konpromiso zehatzik hartu klima-aldaketak zuzenean desplazatuei laguntzeko.

Gainera, 1951ko Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Konbentzioan ez dago inolako xedapenik hondamendi naturalengatik beren etxeetatik ihes egin behar izan dutenentzat, hondamendi horiek klima-aldaketa antropogenikoak eragin baditu ere. Izan ere, Konbentzioa Gerra Hotzaren lehen egunetan idatzi zen, European jazarpenetik ihes egiten zutenei laguntzeko.

Hala ere, iritzi-emaila gutxiagok komentatu zuten berria, Zeelanda Berriko Gobernuak jakinarazi zuenean ez zuela aurrera egingo bisa humanitario horrekin.

2018ko abuztuan, Ian Lees-Galloway Immigrazio ministroak jakinarazi zuen gobernuak ez zuela bisa esperimentalak ezartzeko planik, baina kontuan hartuko zuela klima-aldaketak Ozeano Barean izango dituen ondorioei buruz hark ezartzen zuen ikuspegia, immigrazio-politikei buruzko etorkizuneko elkarrizketetan.

Golriz Ghahraman Alderdi Berdeko immigrazio-bozeramaileak azaldu zuenez, litekeena da bisa humanitario batek ez funtzionatzea Ozeano Barearen testuinguruan. Ozeano Bareko herritarrek erregulariki adierazi dute autodeterminazioa eta irtenbide kolektiboa nahi zituztela, bisa horien banakako ikuspegiaren ordez.

Hitz gutxitan esanda, Zeelanda Berriko gobernuak estrategia aldatu eta Ozeano Bareko uharte-herrialdeen nahiekin bat egin zuen, haiei komeni zitzaiena kanpotik esan beharrean.

Orduan, zein dira Pazifikoko uharteen lehentasunak?

Lehenik eta behin, Ozeano Bareko uharteetako herrialdeek ikusi nahi dute nabarmen murrizten direla berotegi-efektuko gasen isuriak. Aspaldi eskatu diote nazioarteko komunitateari batez besteko tenperatura globala 1,5o gradu zentigradutara mugatzeko.

Haren defentsari esker, eta garapen-bidean dauden beste uharte-estatu txiki batzuekin lankidetzan, Parisko Hitzarmenak 1,5o graduko helburua ezarri zuen, nahiz eta Estatuak ofizialki 2o gradu nahi zituzten.

Berrikiago, Frank Bainimarama Fijiko lehen ministroak, Scott Morrison lehen ministroari eskatu zion Australia erregai fosiletatik urruntzeko. Bainimarama-k adierazi zuenez, industriek ez lukete lehentasunik izan behar Ozeano Bareko herrien ongizatearen gaintetik eta klima-aldaketa jasaten duten pertsonen gaintetik. Azaldu duenez, Fijiko nekazarien bizibideak arriskuan daude itsas mailaren igoeraren eraginez.

Bigarrenik, Ozeano Bareko uharteetako herritar askok etxean geratu nahi dute. 2008an, Ozeano Bareko uharteetako buruzagiak elkartu ziren klima-aldaketari buruzko Niueko Deklarazioa sinatzeko. Adierazpenean, Ozeano Bareko gizartea eta kultura zaintzearen garrantzia aitortzen da, baita herriek beren jatorrizko herrialdeetan bizitzeko duten gogoia ere.

Adierazpenak klima-aldaketaren ondorioetara egokitzea bultzatzen ditu herrialde sinatzaileak. Ozeano Bareko liderrek behin eta berriro eskatu diete beren garapen-bazkideei eta eskualde-erakundeei laguntza bideratu dezaten Ozeano Bareko egokitze-ahaleginetara, eta presioa egin dute



nazioartean funts gehiago lortzeko.

Hirugarrenik, kasurik okerreanean ere, litekeena da Ozeano Bareko uharteetako herritarrek «duintasunez emigratu» nahi izatea eta errefuxiatu gisa ihes egin beharrik ez izatea. Kiribatiko Anote Tong presidente ohiak behin eta berriz eskatu die herrialdeei migrazioarako bideak ireki ditzatela, pertsonak aukeratu ahal izan dezaten noiz desplazatu, errefuxiatuen tratua hartu gabe.

Beraz, zer egin beharko lukete beste herrialde batzuek Pazifikoko uharteetako herrialdeei laguntzeko? Gobernuek eta gizabanakoek oso nabarmen murriztu behar dituzte beren karbono-isuriak.

Gobernuek laguntza eskaini beharko liekete nazio zaurgarrienei klima-aldaketara egokitzeko, eta legezko bideak ireki, Ozeano Bareko uharteetako herritarren migrazioa errazteko.

Zeelanda Berria urrats bat egiten ari da bere Karbono Zero lege-proiektuarekin eta Ozeano Barearen egokitzapenerako laguntza handitzen ari da, baina askoz lan gehiago dago egiteko, bai han, bai atzerrian. Hasteko, arretaz entzun beharko genieke klima-aldaketak gehien kaltetzen dituen pertsonen, eta haiekiko lankidetzan aritu.

Iturria: [Zeelanda Berria: munduko liderra klima eta desplazamendu auzietan? - Foro politikoa](#)